

EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA, ZORU MUGIGARRIDUN BI ERDIATOI BERRI GUZTIZ IRAGAZGAITZEZ HORNITZEKO KONTRATAZIOA ARAUTZEKO.

EZAUGARRI TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA

1. XEDEA

Agiri honen helburua da biohondakinak garraiatzeko erabiliko diren zoru mugigarridun BI erdiatoi berri guztiz iragazgaitz erosteko kontratua arautuko duten ezaugarri teknikoaren agiria zehaztea. Lehiaketa negoziatua da, publikitatea behar duena.

2. ERDIATOIEN ESKURA EMATEA

Kontratuaren xede diren garraiatzeko elementuak Donostiako San Marko Transferentzia Estazioan entregatuko dira, **gehenez ere berrogeita hamar** egun naturaleko **epean**, kontratua sinatzen den unetik hasita, eta elementuen entrega idatziz formalizatuko da. Errepideko garraioaren kostua esleipendunaren kontura izango da.

Garraio-sistemak eskura ematen direnean, agiri honetako 3. klausulan zehazten den gutxieneko ekipamendua izango dute eta, horrez gain, esleipendunak aurkeztutako eskaintzan hobekuntza bezala eskaintzen den ekipamendua.

Mantentzeko lan prebentibo edo zuzentzailea egiteko Gipuzkoako Lurraldean fabrikatzaileak homologatutako lantegiren bat edukiz gero, eskaintzan adierazi beharko da, eta, egokia bada, Donostiatik hurbilen dagoen gomendatutako zerbitzu teknikoa zein den zehaztu.

3. ERDIATOIEN EZAUGARRIAK

Erosiko den karga-sistemak behean zehaztutako ezaugarriak izan beharko ditu, gutxienez:

- Zoru mugigarridun erdiatoia, biohondakinak garraiatzeko.
- **GUZTIZ IRAGAZGAITZA izan beharko da ezinbestez.**
- Era honetan muntatuta eta karrozatuta egongo da: aluminiozko alboak; sabai itxia, furgoi motakoa, toberarekin lan egiteko moduko kargatzeko tranpa-ohola duena, **gutxi gorabehera 3x3,3 m-koa, olanaz estaltzen dena, eta zoru**

mugigarriko sabaiaren gainerako zatia zurruna, xaflazkoa; atzealdeko atea jausgailu modukoa izango da, hidraulikoa; zoru guztiz iragazgaitza, biohondakina garraiatzeko prestatua; eta alboko ate bat ezkerreko aldean, martxaren norabidean, 3x1 m-koa, pala kargatzaileaz albotik kargatzea errazteko. Eskaintzaileak bere iritziz errazen den irtenbidea proposatuko du, hau da: 3 m-ko luzera duen ate bakar bat, edo 1,5 m-ko bi ate. **Eskaintzaileak bakoitzak bi ate izatea proposatzen badu, zehaztu beharko du ateak ixteko emango duen irtenbidea, behar bezala itxi eta ainguratzeko.** Edonola ere, alboko karga egiteko espazioa izango duen zatia indartuta egongo da, espazio ireki horrek egitura osoa ez hondatzeko. Ate horiek eskuz irekiko dira, eta nahi gabe ez irekitzeko segurtasuna ematen duten itxigailu zehatzak izango dituzte.

- 13.000ko gutxieneko txasisa, aluminiozkoa; hiru ardatz gurpil soilekoak, **ordezkatzeko pneumatikoa dutenak.**
- Erdiatoia ekipatuta egongo da garraioa ibilgailu horretan nahitaez eraman behar diren **su-itxalgailuez.**
- Plano makurtuko egitura duen aurrealde guztiz zigitatua, zoru mugigarriko ekipa hidraulikoa kokatzeko. Irekigailu hidraulikoko atzealdeko atea, iragazgaitasun-junturak, pieza bakarreko ezpain bikoitzekoak, **itxigailu hidraulikodunak**, furgoiaren markoaren kontra atzealdeko atearen presioa sortuz funtzionatzen dutenak, iragazgaitasuna % 100ean bermatzeko.
- Egiazko gutxieneko bolumena 80 metro kubikokoa.
- Ezinbestez izan beharko du lixibiatu-tanga bat, 500 litrotik 600 litroa bitarteko edukiera duena.
- Hondakinak maneiatzeko zoru mugigarriko barrak, bereziki tanta-kontrakoak.
- Seinaleak karrozeria jartzeari buruzko azken arauen arabekoak.
- Erdiatoiak motor autonomo bat edukiko du muntatuta, sistema hidraulikoa martxan jartzeko, erradiadoreduna.
- Abio-koadroa, transferentziaguneko toberarekin funtzionatzeko prestatuta dauden konexioak dituena.
- Gehituko dira agintea eta kablea, zoru mugigarria urrutitik abian jartzea maneiatzeko, toberaren goiko aldetik.
- Ponpa hidrauliko bikoitza, funtzioa burutzeko nahiz zoru mugigarriari eta ateari eragiteko.
- Txasisa erdiatoiarri torlojuz lotua.
- Azeleragailu hidraulikoa.
- Erdiatoiak argi eta tulipa guztiak zein sistema elektriko eta konexio-sistema egoera ezin hobean edukiko ditu.

- Erdiatoia zuriz margotuta egongo da.
 - Trakzio-buruari lotzeko sistemak egokiak diren sistema guztiak izango ditu, lotura funtzionamendu- eta segurtasun-baldintza hoberenetan egiteko.
 - Erdiatoia eskura emango da andel hidraulikoa, gasolio-andela, etab. beteta dauzkala.
 - Karga-sistema eskura emango da trafiko, zirkulazio eta bide-segurtasunari buruz indarrean dagoen legeriak zein Ibilgailuen Araudi Orokorrak ezarritako elementu eta zuzkidura guztiez. Era berean, bidezkoa bada, eskura emango da ibilgailuen azterketa teknikoa gaindituta eta egunean daukala.
 - Entrega egiteko unean, esleipendunak ibilgailuari dagokion jatorrizko dokumentazio guztia emango du.
- Erosketarekin edo/eta titulartasun-aldaketarekin lotuta dauden zerga edo tasa guztiak esleipendunaren kontura izango dira. Esleipenduna izango da beharrezkoak diren izapide guztiak egiten dituen.

4. OSAGARRIAK

Garraio-ekipoak agiri honetako 3. klausulan adierazitako osagarriak dituztela hornituko dira, eta, horiez gain, araudiaren arabera nahitaezkoak direnak. Osagarriak ibilgailua osatzeko elementu bezala ulertuko dira, salerosketako kontratuaren ondorio guztietarako.

Era berean, esleipendunak ibilgailuak emango ditu GHKren logotipoa erdiatoiaren bi alboetan eta atzealdeko atean kokatuta daukala. GHK-k, behin esleipena interesdunari jakinarazten dionean, logoa eta egokiak diren datuak eskainiko ditu, esleipendunak errotulazio hori egiteko lana enkargatu ahal izateko. Hauek izango dira neurriak:

Deskargatzeko atean: 1,5 metro garai, eta zabalera proportzionala.

Albo bakoitzean: 1,70 metro garai, eta zabalera proportzionala.

5. HORNIGAIAREN IKUSKAPENA

Erdiatoiak entregatu eta gero, 15 egunez probatuko dira, eskura ematen diren egun horretatik hasita, behar bezala funtzionatzen dutela eta agiri honetan xedatutako zehaztapenak bete direla egiaztatzeko. GHK-ko zerbitzu teknikoen



txostena ikusita, garraio-ekipoen onarpena egingo da.

6. EKIPOEN BERMEALDIA

Gutxienez BI URTEKO bermealdia ezarriko da ekipo horietarako, lehiatzaileek eta esleipendunak beren gain hartuko dutena. Lehiatzaileek argi eta garbi azaldu beharko dute bermealdia beren eskaintzan, eta bertan jasoko da, halaber, sistema hidrauliko eta elektrikoei, mekanikei eta karrozeriari dagokiena; garantiaren barnean sartuko da, baita ere, lantegira lekualdatzeko kostua.

7. INDARREAN DAGOEN LEGE-ESPARRUA

Erdiatioiek indarrean dauden eta behean jaso diren arau guztiak bete beharko dituzte:

- Masak eta neurriak, 97/27 Zuzentaraua.
- Zuzentarau partzialak:
 - Balaztatzea. 71/320/EEE Zuzentaraua
 - Argitzeko gailuen eta argi-seinaleen instalazioa. 76/756/EEE Zuzentaraua.
 - Matrikula-plakaren kokalekua. 70/222/EEE Zuzentaraua.
 - Arauzko plakak. 76/114/EEE Zuzentaraua.
 - Proiekzio kontrako sistema. 91/226/EE Zuzentaraua.
 - Pneumatikoen instalazioa. 92/23/EE Zuzentaraua.
 - Akoplagailu mekanikoak. 94/20/EEE Zuzentaraua.
 - Ibilgailu astun eta luzeen seinaleak. 70R01EEE Erregelamendua.
 - Bateragarritasun elektromagnetikoa. 95/54/EEE Zuzentaraua.
- Unitate tekniko independenteak:
 - Atzealdeko babesgailua. 2006/20/EEE Zuzentaraua.
 - Alboko babesgailua. 89/297/EEE Zuzentaraua.
- Ibilgailu motaren homologazioaren egiaztatzea, 2140/85 Errege Dekretuaren arabera.



8. ESKAINTZA

Lehiatzaileek eskaintza egin ahal izango dute, zehaztutako gehieneko aurrekontuaren mugarekin.

9. AGIRI HONETAN AURREIKUSI EZ DIREN ARAZOAK

Esleipendunaren eta GHKren artean sortzen diren arazo tekniko guztiak konpontzeko –horien konponketa agiri honetako zehaztapenetan aurreikusita ez dagoenean–, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan ezarritakoa beteko da, eta baita gaiari buruz indarrean dagoen gainerako legerian ezarritakoa ere.

10. GEHIENEO ESKAINTZAREN PREZIOA

Eskaintzak aurkezte aldera, gehieneko eskaintzaren muga bat ezarri da bi ekipoak erosteko: 130.000 €, zehazki (ehun eta hogeita hamar mila euro). Eskaintzak gutun-azal itxian aurkeztuko dira, Administrazio Baldintzen Agirian zehaztutako baldintzetan.

Produktuaren eta Prozesuen ingeniaria